



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

t. +34 94 657 40 00
info@azti.es | www.azti.es

Lizitazio iragarkia

Pasaia, 2021eko abenduaren 3a

1. XEDEA

AZTI Fundazioak iragartzen du lehiaketa publiko bidez lizitazio-prozedura bat irekiko duela **“itsasontzi-alkairua, molusku bibalbioen akuikulturarekin zerikusia duten itsas lanetarako beharrezko patroir- eta tripulazio-zerbitzuak barne”** azpikontratatzeko.

Plegu honen helburua jarduera hauen hornitzailea hautatzea da:

- Itsasontzi bat alokatzea Lekeitio-Ondarroako Moluskuen Ekoizpen Eremuan lan egiteko, batez ere akuikulturako I+G+B instalazio batean, AZTIk hornitzailearekin erabakitzen duenean. Hornitzaileak honako irteera-portuak aukera ditzake: Ondarroa, Lekeitio edo Mutriku.
- Akuikulturako I+G+B proiektuetan lanak egiteko behar den itsasontziko patroia eta tripulazioaren zerbitzua.

Lehiaketa honetan sartzen diren lanak Ondarroa eta Lekeitio arteko kostaldeko tartean egingo dira, 30-60 metroko sakoneran, eta hauek izango dira:

- AZTIko pertsona baten garraioa, gutxienez.
- I+G+B long line-an egiten diren lanak ikuskatzea.
- Sokak errabizekin, zotzekin eta etiketekin prestatzea.
- Muskuiluen kaptaziorako eta gizentzeko sokak jartzea.
- Muskuiluak soketan jartzea eta soketatik aletzea.
- Soketan hazitako muskuiluetan bizirauteko neurriak hartzea.
- Fitoplanktonaren laginak mahukarekin hartzea.
- Ur-laginak hainbat sakoneratan biltzea.
- CTDen lantzeak (zunda hidrografikoa).
- AZTIko akuikulturako I+G+B instalazioaren mantentze-lanetan laguntzea.
- Mantentze-lanak, garbiketa, etab. ekipamendu ozeanografikoa edo akuikulturako instalazioak, itsasoan ekipamenduak instalatu edo desinstalatzeko.
- Antzeko beste lan batzuk, hornitzailearekin egin ahal izatea adostu ondoren.



2 0 1 1

2. ZERBITZUAREN IRAUPENA

Ondarroa eta Lekeitio arteko eremuan (35 m eta 60 m bitarteko sakoneran) itsasoratzeko lanegun bat eskaintzea eskatzen da (gehienez ere 8 ordu, hornitzaileak proposatzen duen portutik aterata, Ondarroa, Lekeitio edo Mutriku eta portura bertara itzulita).

Eskaintza ekonomikoa egiteko, lizitatzailerak kontuan hartu beharko du asteko irteera bat lanegunetan, indarraldiko lehen urtean.

Proiektua 12 hilabeteko epean egingo da, kontratua sinatzen den egunetik zenbatzen hasita (behin-behinekoz, 2022ko irailetik 2023ko irailera arte), eta horietako bakoitzak 6 hilabeteko bi luzapen izan ditzake.

Proiektua **12 hilabeteko (1 urte)** epe maximoan gauzatuko da, kontratuaren sinatze datatik hasita non hasiera 2022ko irailaren 1tik 2023ko abuztuaren 31ra bitartean izango den . Epe hau bi sei hilabetez (6 hilabete) luza daitekeelarik automatikoki, baldin eta alde batek aurkako erabakia beste alderdiari idatziz adierazten ez badio, hasierako epe muga baino hilabate lehenago.

3. ESKAINTZA EKONOMIKOA

Lizitazio honetarako onartuko den gehienezko eskaintza ekonomikoa **bi mila eta zazpiehun euro irteerako da (2.700,00,00 €/irteerako)**, zergak barne hartu gabe. Kontutan izanda 50 irteera kopurua gehienez izango delarik.

Eskaintza ekonomikoak taula honetako "Eskaintza ekonomikoa" zutabea betez aurkeztu beharko dira:

Kontzeptua	Gehinezko prezio unitarioa	Gutxi gorabeherako irteera kopurua	Eskaintza ekonomikoa (prezio unitarioa)	Totala
Lanak itsasoan	2.700€	50		

Fakturazioa zerbitzua hilabetero egingo da, eta jaulki eta hurrengo 60 egunetan ordainduko da faktura.

4. PROPOSAMENAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

Jasotako proposamenak irizpide hauen arabera baloratuko dira:

Eskaintza ekonomikoa	%55
Doitasun teknikoa	%30
Hobekuntzak	%10
Gizarte Erantzukizun Korporatiboko Politikak	%5

5. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

Lizitatuzaileek Alaitz Lizasori aurkeztu ahal izango dizkiote proposamenak alizaso@azti.es helbide elektronikoan eta AZTIren edozein zentrotan, iragarki hau AZTI Fundazioaren webgunean argitaratzen denetik **2021eko Abenduaren 17ko 12:00ak arte**.

Lizitatuzaileek helbide honetara jo ahal izango dute informazio tekniko gehigarria jasotzeko:

AZTI

Norentzat: Izaskun Zorita

Tel. 34 667 174 422

Mail: izorita@azti.es

6. ESLEIPENA

Eskaintzak aurkezteko adierazitako egunean jaso ondoren, 15 laneguneko epean, AZTI Fundazioaren webgunean argitaratuko da lizitazioaren emaitza.

7. KONTRATAZIORAKO BALDINTZAK

- Hautatutako erakundea, AZTIrekiko zerbitzuak dirauen bitartean, lan, Gizarte Segurantzaren eta Laneko Segurtasun eta Osasunaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko du, eta, dagokionean, enpresa jarduerak koordinatu beharko ditu, 171/2004 Errege Dekretuaren arabera, ezarritako prozedura eta espezifikazioei jarraituz (hemen eskuratu daitezke <http://www.azti.es/es/coordinacion-de-actividades-empresariales/>)



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

- Hautatutako erakundeak, beste edozein agiri alde batera utzita, zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria aurkeztu beharko du kontratua formalizatu aurretik.
- Hautatutako erakundeak kontratua formalizatzeko behar den dokumentazioa aurkeztu beharko du gehienez 20 eguneko epean, esleipena egiten denetik zenbatzen hasita. Edozein gai gehigarri kontsultatu ahal izango da www.azti.es helbidean argitaratutako Kontratazioaren barne Araudian.
- Hemen falta da erderaz agertzen den beste atal bat:
- Baldintza teknikoez eta administratiboez gain, AZTIk positibo baloratuko ditu Kalitate, Seguratasun eta Osasun, Ingurumen, Mugikortasun Jasangarri eta Gizarte Erantzukizun Korporatiboko politikiei eusten dietela frogatzen duten hornitzaileei.

Hornitzaileak politika horiek egiaztatzeko aukera ematen duten dokumentuak edo erregistroak sartuko ditu bere proposamenean (kalitate ziurtagiriak, ingurumenekoak, gizarte erantzukizuneko gaietako jardueri buruzko dokumentazioa, etab.).

8. DATUAK BABESTEKO ERREGELAMENDU OROKORRA

Arduraduna: Izena: AZTI FUNDAZIOA - IFK: G48939508 Posta helbidea: TXATXARRAMENDI UGARTEA Z.G. SUKARRIETA (BIZKAIA) Telefonoa: 946574000 Helbide elektronikoa: lopd@azti.es.

"AZTI FUNDAZIOAn ematen diguzun informazioa tratatzen dugu, zure eskaera egiteko, zerbitzuak fakturatzeko eta merkataritza harremanak mantentzeko. Zure datu pertsonalen tratamenduaren oinarri juridikoa merkataritza harremanak izateko eta zerbitzuak emateko dugun interes legitimoa da, eta behar-beharrezkoak dira helburu horretarako. Emandako datuak gorde egingo dira merkataritza harremanak dirauen bitartean edo legezko betebeharrak betetzeko behar diren urteetan, eta, harremana amaitu ondoren, erantzukizunak sor daitezkeen neurrian. Datuak ez zaizkie hirugarrenei lagako, legezko betebeharren bat dagoenean izan ezik, ezta zerbitzu tekniko eta informatikoen eta auditoretzaren hornitzaileei ere. Halaber, ez du inola ere zure datu pertsonalen nazioarteko transferentziarik egingo. Eskubidea duzu AZTI FUNDAZIOAn zure datu pertsonalak tratatzen ari garen jakiteko; ondorioz, eskubidea duzu zure datu pertsonaletan sartzeko, datu okerrak zuzentzeko edo ezabatzen eskatzeko, datuak jada beharrezkoak ez direnean, baita ere aurkaratzeko, mugatzeko eta lekualdatzeko eskubidea ere, datuen babesari buruz aplikatu beharreko araudian xedatutako terminoetan, goian adierazitako helbidera idatziz jakinaraziz. Halaber, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute kontrolerako agintaritza eskumendunaren aurrean.

9. BALDINTZA TEKNIKOAK

Itsasontziak ondoko ezaugarri teknikoak bete behar ditu:

- Itsasertzetik kanpo 2 milia nabigatzeko gaitasuna.
- 10 m-ko gutxienerako luzera eta 4 m-ko gutxienerako zabalera.
- Lanerako espazio librea, gutxienez 12 m².
- Itsasontziaren gutxienerako abiadura: 10 korapilo.
- Elikadura elektrikoa (12 eta 24 V).
- Hornitzaileak utzitako gutxienerako tripulazioa: 2 tripulatzaile.
- Itsasontziaren tripulazio minimoaz gain, gutxienez AZTIko persona bat ontziratzeke gaitasuna.
- Txopako garabia, 4 m-ko luzerako beso batekin gutxienez 3 tona altxatzeko gai dena.

Lanak egiten direla ziurtatzeko eta lanak ahalik eta arinen definitzen eta egiten laguntzeko (batez ere presako egoeretan), hornitzaileak harremanetarako pertsona bat sartu behar du bere eskaintzan, eta pertsona horrekin komunikatzeko bidea deskribatu (gutxienez telefono mugikorra eta helbide elektronikoa). Bestalde, AZTIk solaskide nagusi gisa harremanetarako pertsona bat jarriko du hornitzailearen eskura.

72 ordu lehenago jakinaraziko dio AZTIk hornitzaileari ohiko/planifikatutako baldintzetan lan bat egin behar duela.

Hala bada, urtero berrikusiko da komunikazio-prozesua, eta bi aldeek aldaketak proposatuko dituzte zerbitzuaren zati hori hobetzeko. AZTIren esku geratuko da aldaketa horiek hurrengo urteetarako sartzea edo ez sartzea.

Hautatutako entitateak egindako lanen konfidentzialtasuna bermatuko du.

Eskaintzaileari eskatzen zaio eskaintza teknikoaren agirian argi eta garbi zehaztu eta bereiz dezala eskatzen diren gutxienerako baldintzei buruzko informazioa, eta hobekuntzetatik gutxienerako baldintzak zeintzuk diren. Horretarako, hobekuntzei buruzko atal berezi bat idatzi behar da, eta bertan uretako jarduerekin zerikusia duten hobekuntzak (langileak, ekipamendua, esperientzia, etab.) sartzea proposatzen da.

Lizitatuak agiri honetan eskatzen diren gutxienerako baldintzak onartzen dituela adierazi behar du, eta argi eta garbi zehaztu behar du AZTIren esku jartzen dituen baliabideak



MEMBER OF
BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

eta mekanismoak, baldintza-orri honetan jasotako lanak betetzeko. Era berean, eskaintza kontuan hartzeko, proposatutako hobekuntzak betetzeko eskura jartzen diren giza baliabideak eta baliabide teknikoak zehaztu beharko dira.

AZTIk eskubidea du jasotako proposamenei buruzko argibideak edo informazio osagarria eskatzeko.